



**ERABAKIA, ZEINAREN BIDEZ EZESTEN BAITIRA xxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxx,
xxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxx, xxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxx, xxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxx ETA
xxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxx JAUNEK EUSKADIKO EUSKAL PILOTA FEDERAZIOKO
HAUTESKUNDE BATZORDEAREN (KONTU-HARTZAILEA) ERABAKIAREN
AURKA AURKEZTUTAKO BOST ERREKURTSOAK.**

Espediente-zenbakiak: 19/2017, 20/2017, 21/2017, 22/2017 eta 23/2017.

AURREKARIAK

Lehenengoa.- 2017ko urtarrilaren 30ean, xxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxx,
xxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxx, xxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxx, xxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxx eta
xxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxx jaunek (xxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxx jauna Gipuzkoako
Euskal Pilota Federazioaren presidente modura; beste lau errekurtsogileak, berriz,
prozeduran duten legitimazioa zehaztu gabe) errekurtsoa aurkeztu zuten «*Euskadiko
Euskal Pilota Federazioko kontu-hartzaileak hartutako erabakiaren aurka; erabaki
horren ondorioz, Eusko Jaurlaritzako Gazteriako eta Kiroletako zuzendariak
inposatutako guztia onartu zuen, eta, horrenbestez, bere independentzia galdu eta
Federazioaren Hauteskunde Erregelamendua urratu zuen*».

Zehazki, eta laburbilduz, bost errekurtsoek, literalki berdinak izanik, hiru alderdi
errekurritzen zituzten:

- a) Eusko Jaurlaritzako Gazteriako eta Kiroletako zuzendariak 2017ko
urtarrilaren 10eko Ebazpenean xedatutakoaren arabera jardun duela
hauteskunde-prozesuko kontu-hartzaileak, eta, ondorioz, bere
independentzia galdu duela.
- b) Euskadiko Euskal Pilota Federazioaren presidentea aukeratzeko bozketan
hiru hautetsontzi erabili zirela, eta ez bakar bat, Pilotako
Erregelamenduaren 47. artikulua xedatzen duenari jarraikiz; hala, botoaren
sekretua agerian jarri zen.



- c) Presidenteak aukeratzeko botoak zenbatzean, notarioa eta hauteskunde-prozedurako kontu-hartzailea bakarrik gelditu zirela, eta bertaratutako batzarkide guztiei aretotik irtetera behartu zitzaizela.

Kirol Justiziako Euskal Batzardeak (aurrerantzean KJEB) bost errekurtsioak izapidetzea erabaki zuen, eta Euskadiko Euskal Pilota Federazioari jakinarazi zion hamabost egun balioduneko epean espediente osoaren fotokopia konpultsatua eta kasuan kasuko alegazio-idazkia aurkeztu behar zituela eta, hala bazegokion, egokitzen jotako frogaren proposatu.

Bigarrena.- 2017ko otsailaren 23an, Euskadiko Euskal Pilota Federazioak aurkeztutako dokumentazioa jaso zen Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko erregistroan.

Hirugarrena.- Hauteskunde-prozesuko kontu-hartzaileak, Euskadiko Euskal Pilota Federazioko Hauteskunde Batzarde modura jardunez, 2017ko martxoaren 1ean aurkeztu zuen alegazio-idazkia.

Laugarrena.- Euskadiko Euskal Pilota Federazioaren presidentek 2017ko martxoaren 1ean aurkeztu zituen bere alegazioak.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.- Kirol Justiziako Euskal Batzardearen eskumenak ekainaren 11ko 14/1998 Legearen (Euskadiko Kirolari buruzkoa) 138. artikuluan eta urriaren 18ko 310/2005 Dekretuaren (Kirol Justiziako Euskal Batzardea arautzen duena) 3. Artikuluan zehaztuta daude.

Bost errekurtsioek literalki xede bera dute: Euskadiko Euskal Pilota Federazioko kontu-hartzailearen erabakia aurkaratzea eta bozketa errepika dadin agintzea, oraingo honetan hautetsontzi bakarrean eta batzar nagusiko kide guztiak bertan direla, bozketa hasten denetik amaitzen den arte.



Xede horretatik ondorioztatzen da, errekurtsogileetako inork ez baitu zehazten, kontu-hartzailearen erabakiari jarri zaiola errekurtsoa, hain zuzen ere, Hauteskunde Batzorde modura jarduten zuela, Euskadiko Euskal Pilota Federazioaren presidentea izendatzeko bozketan hiru hautetsontzi erabiltzea (lurralde historiko bakoitzeko bana) ebatzi baitzuen.

Kontu-hartzaileak aurkeztutako alegazioetan argi eta garbi adierazten da bost errekurtsuok, *«bere garaian Hauteskunde Batzorde honetan aurkeztu zirenek bezalaxe, aurkaratzeko arrazoi hau erabiltzen dutela: Hauteskunde Batzordea organo erabat independentea izan behar dela, halako moldez non ez presidentek, ez Batzar Nagusiak, eta are gutxiago Gazteria eta Kirol Zuzendaritzak, ezingo duten haren erabakietan esku hartu; horrenbestez, Kirol Justiziako Euskal Batzordeak soilik du eskumena bere erabakiak eta ekintzak aztertzeko, bi lege hauen arabera: Kirol Justiziako Euskal Batzordea arautzen duen urriaren 18ko 310/2005 Dekretuaren 3.b) artikulua eta Euskadiko Kirol Federazioaren urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuaren 126.2 artikulua».*

Kasu honetan, kontu-hartzaileak adierazten duen moduan, errekurtsuok ekainaren 11ko 14/1998 Legearen (Euskal Autonomia Erkidegoko kirolari buruzkoa) 138.b) artikuluan eta urriaren 18ko 310/2005 Dekretuaren (Kirol Justiziako Euskal Batzordea arautzen duena) 3.b) artikuluan zehaztutako kasuetan leudeke.

Aldiz, errekurtsuaren arrazoia *Euskadiko Euskal Pilota Federazioko kontu-hartzailearen erabakia bada –erabaki horren ondorioz, Eusko Jaurlaritzako Gazteriako eta Kiroletako zuzendariak inposatutako guztia onartu zuen, eta, horrenbestez, bere independentzia galdu eta Federazioaren Hauteskunde Erregelamendua urratu zuen–*, kasu hori ez dago KJEBren eskumenen artean eta, beraz, ez lirateke bost errekurtsuok onartu beharko.

Halaber, errekurtsua Gazteriako eta Kiroletako zuzendariaren 2017ko urtarrilaren 10eko Ebazpenaren aurka jarri nahi bada, KJEB honek ez du horretarako eskumenik; izan ere, bere garaian aurkeztu behar zitzaion Eusko Jaurlaritzako Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordeari.



Horregatik guztiagatik, eta bost errekurtoetako batek ere zehazten ez duen arren, ulertzen da errekurtoa Euskadiko Euskal Pilota Federazioaren erabakiaren aurkakoa dela, zehazki hauteskunde-prozesuko kontu-hartzaileak bere jardunean hartutako erabakiaren aurkakoa; egoera hori KJEBren eskumenen artean dago.

Bigarrena.- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak 57. artikuluan ezartzen duena aplikatuko da:

«57. artikulua. Metatzea.

Prozedura hasten edo izapidetzen duen administrazio-organoak, prozedura hasteko modua edozein dela ere, erabaki dezake, ofizioz edo interesdunaren eskariz, prozedura hori metatzea oinarri bera edo lotura estua duten beste batzuekin, organo berak izapidetu eta ebatzi behar badu prozedura.

Metatzeko erabakiaren aurka ezin da errekurtsorik aurkeztu».

Kasu honetan, agerikoa da bost errekurtoek harreman zuzena dutela, guztien edukia literalki berdina baita, errekurtsogilearen izenean izan ezik.

Horrenbestez, horiek metatzea erabaki da, bost errekurtoak erabaki honen bidartez erantzuteko helburuarekin.

Hirugarrena.- Euskadiko Euskal Pilota Federazioko hauteskunde-prozesuak kontrolatzeko eskuordetutako funtzio publikoa kontu hartuta dago, Eusko Jaurlaritzako Gazteriako eta Kiroletako zuzendariak 2017ko urtarrilaren 10ean ebatzitakoaren arabera.

Laugarrena.- Hau da bost errekurtoetan errekurritzen den lehenengo alderdia: «hauteskunde-prozesuko kontu-hartzaileak Eusko Jaurlaritzako Gazteriako eta Kiroletako zuzendariaren 2017ko urtarrilaren 10eko Ebazpenean xedatutakoaren arabera jardun duela, eta, ondorioz, bere independentzia galdu duela».



Errekurtsogileen arabera, independentzia hori arriskuan jarri da kontu-hartzaileak Eusko Jaurlaritzako Gazteriako eta Kiroletako zuzendariaren Ebazpenean xedatutako kautelazko neurriak hartu dituelako.

Argudio hori ikusita, pentsa daiteke Gazteriako eta Kiroletako zuzendariaren 2017ko urtarrilaren 10eko Ebazpenaren edukia bera errekurritu nahi dela zeharka. Aurreratu dugun moduan, batetik, KJEBk ez du errekurtsio hori aztertzeko eskumenik, eta, bestetik, ez da Ebazpenaren edukiaren aurkako errekurtsioa jartzeko bide egokia.

Kontu-hartzailearen jokabideari dagokionez, eta berak alegatzen duen moduan, Gazteriako eta Kiroletako zuzendariaren 2017ko urtarrilaren 10eko Ebazpenean hartutako neurriak kautelazkoak dira, kontu-hartzailearen izendapena bera bezalaxe, eta kautelazko neurri horien xedea Euskadiko Euskal Pilota Federazioak dituen administrazio-funtzio eskuordetuak betetzen direla bermatzea da. Ez da inola ere izendatutako kontu-hartzailearen esku egongo berau izendatzen duen ebazpenaren edukia legezkoa den ala ez zalantzan jartzea, eta horren edukia legeriarekin bat ez datorrela dela uste duen edonork errekurtsioa aurkeztu ahal izango du, dagokion organoari eta legeak ezarritako epeetan.

Horrenbestez, kontu-hartzaileak zuzen jokatu du, Gazteriako eta Kiroletako zuzendariaren 2017ko urtarrilaren 10eko Ebazpenean xedatutako kautelazko neurriak aplikatzera behartuta baitago.

Bosgarrena.- Hau da errekurritzen den bigarren alderdia: «Euskadiko Euskal Pilota Federazioaren presidentea aukeratzeko bozketan hiru hautetsontzi erabili ziren, eta ez bakar bat, Pilotako Erregelamenduaren 47. artikulua xedatzen duenari jarraikiz; hala, botoaren sekretua agerian jarri zen».

Gazteriako eta Kiroletako zuzendariaren 2017ko urtarrilaren 10eko Ebazpenean honako hau adierazten da: *abenduaren 9ko eta 2017ko urtarrilaren 9ko Hauteskunde Batzordearen Ebazpenak oinarri hartuta Batzarraren osaketari buruz sor daitezkeen eztabaidei dagokienez, lehenengoa Bizkaiko eta Gipuzkoako ordezkariekin osatzen da,*



eta, bigarreanean, gainera, Arabako ordezkariak gehitzen da; uste dugu ordezkariak hori eztabaidagarria eta aurkaratzeko modukoa izan daitekeela. Hala, auzi horri buruz egin daitezkeen bi interpretazioen eskubideak berma daitezkeen, uste dugu komeni dela batzarkide guztiek bozkatzea, baita arabarrek ere. Horregatik, beharrezkotzat jotzen dugu Batzar horretako bozketan bereizitako hiru hautetsontzi erabiltzea, eta bakoitzean dagozkion lurralde-ordezkariek (Gipuzkoa, Bizkaia, Araba) bozkatzea; modu horretan, etorkizunean aurkaratzeak gertatzen badira, zalantzan ez dauden bozketak mantentzea bermatuko da.

Lehenago adierazi dugunez, hau ere, prozeduraren kontu-hartzailetzarekin batera, 2017ko urtarrilaren 10eko Ebazpenaren bidez aplikatutako kautelazko beste neurri bat da; ebazpen horri ere ez zaio jarri aurkako errekurtsorik.

Gai horri buruz, Euskadiko Euskal Pilota Federazioaren presidentek hau adierazi du: «*Euskadiko Euskal Pilota Federazioko Batzar Nagusian presidentea aukeratzean emandako botoa guztiz sekretua izan zen, batzarkide bakoitzak, boto-papera hautetsontzi batean sartuz, bere botoa modu sekretuan eman zuen-eta. Are gehiago, ez da inongo batzarkideren botorik identifikatu, eta ez ziren identifikagarriak; horrenbestez, botoaren sekretua edo sufragio sekretua bermatuta zegoen.*

Halaber, hiru hautetsontzi egoteak ez du botoaren sekretuan eragiten; izan ere, egiazta daitekeenez, batzarkide guztiek baliatu dute beren bozkatzeko eskubidea eta inork ez du jakin zer bozkatu duten.

Izendatutako kontu-hartzaileak kontrolatu zuen hauteskunde-prozesua, eta hautagaiek aukera izan zuten beste kontu-hartzaile batzuk baliatzeko –eta halaxe egin zuten–, hauteskunde-prozesua modu garbian eta edozein arau edo xedapen arauemaile hautsi gabe egin zela egiaztatzeko.

Administrazio publikoak izendatutako kontu-hartzaileaz eta hautagaiek horretarako izendatutakoez gain, Euskadiko Euskal Pilota Federazioko aholkulari juridikoa zegoen bozketan, zeinak egiaztatu ahal izan zuen gauzatutako prozesuak hauteskunde batean eskatzen diren bermeak errespetatzen zituela».



Izendatutako kontu-hartzaileak ere gai horri buruzko alegazioak aurkeztu dizkigu: *«Botoak hautetsontzi bakarrean edo hainbatetan sartzeak ez du eragozten ez eta eragiten ere botoaren sekretuan; izan ere, gutun-azal itxi batean emateaz gain, boto-paper bakoitzaren anonimotasuna bermatzen duen sistema erabiltzen da, non boto-paper hori beste boto-paper berdinekin biltzen den. Lurralde bereko batzarkide guztiak hautagai beraren alde bozkatzuz gero soilik ondorioztatu daiteke boto-emaile bakoitzaren botoa, eta, muturrera eramanda, gauza bera gertatuko litzateke, bozketa hautetsontzi bakarrean eginda, boto-emaile guztiak hautagai beraren alde bozkatuko balute.*

Gazteriako eta Kiroletako zuzendariaren 2017ko urtarrilaren 10eko Ebazpenak ezarritako neurriarekin batera, kontu-hartzaile honek erabakitako beste neurri bat etorri zen, hain zuzen ere, botoaren sekretua are gehiago bermatzearen mesedetan: notario baten esku-hartzea eskatzea, hautetsontzi bakoitzeko zenbaketaren notario-akta egin zezan, eta notario-akta hori protokolizatu zezan, halako moldez non kopiak soilik baldintza hauetan luzatuko diren: kontu-hartzaile honen eskariz eta bere momentuan aurkez daitezkeen errekurtsio administratibo edo judizialak ebazteko beharrezkoak badira.

Hartutako neurri horiek Euskadiko Euskal Pilota Federazioko batzarkide izan zitezkeen guztien parte-hartzerik handiena bermatu nahi dute, alde batera utzita Arabako Euskal Pilota Elkarteko hauteskundeekin loturan eta Kirol Justiziako Euskal Batzordean edo edozein organo administratibo edo judizialean oraindik azterketa-fasean eta ebazteke egon daitezkeen errekurtsioek izan ditzaketan emaitzak.

Eusko Jaurlaritzako Gazteriako eta Kiroletako zuzendariaren Aginduan berariaz adierazten denez, hartu zuen erabakiak hauteskunde-egintzen kontserbazio-printzipioa bermatzea zuen xede, zeinaren bidez akatsik gabekoak mantendu ahal diren, hauteskundeak behar gabe errepikatzea eragozteko, berriro gauzatzeak berez ekarriko bailuke Eusko Jaurlaritzako kulturako sailburuaren 2012ko otsailaren 19ko Aginduan horretarako aurreikusitako epea ez betetzea; Agindu horrek euskal kirol-federazioen



eta lurralde-federazioen erregelamenduak prestatzeko eta hauteskundeak egiteko irizpideak finkatzen ditu».

Alegazioak aztertu ondoren, esan daiteke hiru hautetsontzitan bozkatzeak, bakarrean beharrean, ez duela botoaren sekretua agerian jarri; izan ere, inongo batzarkideren botorik ez da identifikatu, eta ez da identifikagarria izan; ez du inork ezagutu batzarkide bakoitzaren botoaren zentzua; hautagaiek aukera izan zuten beste kontu-hartzaile batzuk baliatzeko –eta halaxe egin zuten–, hauteskunde-prozesua modu garbian eta edozein arau edo xedapen arauemaile hautsi gabe egin zela egiaztatuz; eta, azkenik, kontu-hartzaileak notario baten esku-hartzea eskatu zuen, hautetsontzi bakoitzeko zenbaketa notario-akta egin zezan, bozketa behar bezala egin zela bermatzeko.

Seigarrena- Hau da errekurritzen den hirugarren alderdia: «presidentea aukeratzeko botoak zenbatzean, notarioa eta hauteskunde-prozedurako kontu-hartzailea bakarrik gelditu ziren, eta bertaratutako batzarkide guztiei aretotik irtetera behartu zitzaizen».

Horri buruz, Euskadiko Euskal Pilota Federazioaren presidentek hau alegatzen du: «*Ebazpen administratiboak izendatutako kontu-hartzaileak ezarri moduan gauzatu zen zenbaketa, eta presidentetzarako bi hautagaiek izendatutako kontu-hartzaileek berriaz onetsi zuten; hala, zenbaketa kontu-hartzaileak izenpetutako eta aipatutako kontu-hartzaileek sinatutako aktan agertzen den moduan egitea onartu zuten hautagaiek. Aipatu behar da kontu-hartzaileek botoen zenbaketan egon ahal izan zutela, kontu-hartzaileak eta egintzara ekarritako notarioak zegokion akta egin ondoren. Inongo agindu arauemailetan ez da ezartzen Euskadiko Euskal Pilota Federazioaren presidentetzarako hautagaia ez den batzarkide batek botoen zenbaketa-lanetan parte har dezakeenik bozketa amaitu ondoren; izan ere, preseski horretarako, hautagaiek aukera dute zenbaketa zuzenean ikusteko edo horretan laguntzeko kontu-hartzaileak izendatzeko».*

Prozedurarako izendatutako kontu-hartzaileak hau alegatzen du: «*Benetan gertatutakoa zintzoki adierazteko, kontu-hartzaile honek behar besteko aurrerapenaz azaldu zien hautagaiei, bai eta haien ordezkariari eta hauteskunderako kontu-hartzaileei*



ere, nola jardungo zuen zenbaketa egitean, botoen sekretuaren berme handiagoa izate aldera (...). Denek aho batez onartu zuten; beraz, bozketa amaituta, hautagai, haien kontu-hartzaile, lege-aholkulari eta gainerako batzarkide guztiak aretotik irten baziren – ezin da ziurtatu, batzarra instalazio ireki batzuetan egin baitzen, eta horrexegatik ez zen batzarreko aktan adierazi–, izatekotan ere, beren borondatez izan zen, notarioak ez baitzuen inongo momentutan bere jokabidea baldintzatu inongo batzarkideren presentziaren arabera, bestela ezin zitekeenez.

Hautagaiek eta haren kontu-hartzaile eta legezko ordezkariak beren borondatez jakinarazi zioten kontu-hartzaile honi atsedenaldia egiteko eta irteteko erabakia hartu zutela, eta, izatekotan ere, haiek izan ziren, eta ez notarioa, gainerako batzarkideei gauza bera egitea gomendatu zietenak. Zalantzarik gabe, hautagaietako edozeinen kontu-hartzaileak zenbaketa zuzenean ikustea eskatu izan balu, kontu-hartzaile honek, Hauteskunde Batzordearen eta Mahaiaren eginkizunetan, horretarako baimena emango lioke, haiei baitagokie eskubide hori, ez ordea edozein batzarkideri. Batzarkideek, batzarra egin behar den aretotik irten behar ez badute ere, ez dute zenbaketan modu aktiboan parte hartzeko eskubiderik, aitzitik, emaitza ezagutu dezakete soilik. Hain zuzen, horixe erantzun zitzaion Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioko kirolarien estamentuko batzarkide ordezkariari –K. R. I. jauna–, 2017ko urtarrilaren 13 bereko Ezohiko Batzar Nagusia zela-eta kontu-hartzaile honek egindako aktan jasotzen den moduan, eta era berean islatu zen 2017ko urtarrilaren 16ko aktan jasotzen diren erabakietan.

Horregatik guztiagatik, ondorioztatzen da nolabaiteko gaizki-ulertua egon zitekeela errekurtsogileen eta kontu-hartzaileen eta notarioaren artean, zenbaketa egiterakoan. Gaizki-ulertu horrek ez du baliogabetzen 2017ko urtarrilaren 13an egindako hauteskunde-prozesua.

Ondorio gisa, eta azaldutako guztia aintzat hartuta, laburbilduz, adierazi behar da kontu-hartzaileak zuzen eta legeari jarraikiz jokatu duela, hiru hautetsontzitan bozkatzeak ez duela botoaren sekretua agerian jarri, eta, hauteskundeen egunean, botoen zenbaketa legez ezarritako berme guztiekin egin zela, eta, beraz, bai bozketa bai botoen zenbaketa legez ezarritako berme guztiekin egin zirela.



Horregatik guztiagatik, Kirol Justiziako Euskal Batzardeak honako hau

EBAZTEN DU

Ezestea XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX, XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX,
XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX, XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX eta XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX
jaunek Euskadiko Euskal Pilota Federazioko Hauteskunde Batzardearen (kontu-
hartzaila) erabakiaren aurka aurkeztutako bost errekurtsuak; errekurtsu horiek
eskatzen dute Euskadiko Euskal Pilota Federazioko kontu-hartzailaren erabakia
aurkaratzea eta bozketa errepika dadin agintzea, oraingo honetan hautetsontzi
bakarrean eta batzar nagusiko kide guztiak bertan direla, bozketa hasten denetik
amaitzen den arte.

Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, aukerako
berraztertze-errekurtsua aurkeztu ahal izango diote interesdunek Kirol Justiziako
Euskal Batzardeari, hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik
aurrera; bestela administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkeztu ahal izango dute
Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian edo errekurtsogileen helbidearen
arabera dagokienean, bi hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik
aurrera, hala xedatzen baitu Administrazioarekiko auzien jurisdikzioari buruzko
uztailaren 13ko 29/1998 Legeak.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko apirilaren 25a.

JOSÉ LUIS IPARRAGIRRE MUJICA

Kirol Justiziako Euskal Batzardearen presidentea